

Maialen Lopez Lasa


A maila • 2 aipamena

Orri zuritan idatzitakoa betiko geratzen omen da, denboraren preso, baina, erabat aske. Idaztea baita egun aske izateko era bakarrenetakoa. Eta aske den horrek, idazleak, lauzpabost hitz, gerora esaldi eta azkenik, istorio izango direnak utziko ditu betiko, askatasunean erabat preso. Hura izango baita berak utzitako ondare...

Nik ere halaxe utzi ditut hementxe nire hizkiak, azken aldiz. Aurten niri baitagokit ondarea hemen uztea, hurrengoetako bakoitzak bere egin eta harekin jarrai dezan, nik, noizbait, jarraitu nuen moduan, hitz xume horien bidez aske izaten, libre.

Beraz, besterik gabe, aipamen hau idaztean, aske izaten irakatsi didaten ama eta aitari eskeini nahi nieke.

Maialen Lopez Lasa naiz eta hamazazpi urte ditut.



ERREALITATEAREN JOKUAN

I. Gezurraren itzalpean
ezkutaturik
egia argia hain zaila baita ateratzen
Oro errazagoa
buruari ateak ireki
bihotza itxi
pentsatutakoa esan eta
sentitzen dena mututu.

II. Zera diote
alde egin dutela hitz polittek
itzali begiradak
hondatu irriñoak.
Ixildu dela urretxindorra,
zurbildu izarrak
erori esperantzaren giltza eta
ilunpetan galdu.

III. Aiseriaz oro
lurperatutako altxorra
bilatzeaz nekaturik.
Printzesa dorrean giltzapeturik
eta loti ederra muxurik gabeko
betiereko loaldian murgildurik,
lauza horidun bidea hesituta
ostadarra zeharkatzea ezinezko...

IV. Halaxe
neskatoa oinutsik arrotz,
txorimaloa txoriburu,
lehoia koldarki
eta latorrizko gizona soraioz...
Betirako, betiko, betiereko...
Errealitatearen joku bortitzean
ametsak aienatzen diren horretan.

V. Baina Ni
nire ametsen ameslari naiz
hitz politten mintzalari
ilusioen ilusionista
eta baladen trobadore.

VI. Baina Neu
Elkarrekiko begiraden dizdira naiz
nire irribarraren keinu
bihotz taupaden doinu
eta maitemina ren gar.

VII. Hortaz,
liluratuko dut urretxindorra
kanta dezan
xarmatuko izarra
dir-dir egin dezan

VIII. Eta esperantzaren giltzaren bila
lauza horidun bidean
emeki-emeki
altxor lurperatuaren lorratza
eta loti ederraren maitalea aurkituko ditut.
Bederen...